

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	ERAIKUNTZA-PROIEKTU ETA -OBREN PLANIFIKAZIOAREN SEGIMENDUA.	Iraupena	60
		Espezifikoa	
Kodea	UF0649		
Lanbide-arloa	ERAIKINGINTZA ETA OBRA ZIBILAK		
Lanbide-eremua	Obra-proiektuak eta -segimendua		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Eraikuntza-proiektu eta -obren kontrola	Maila	3
Prestakuntza-modulua	Eraikuntza-planifikazioa	Iraupena	210
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Proiektuen eta obren planifikazioa diseinu- eta kontratazio-faseetan	Iraupena	90
	Eraikuntza-obretako gauzatzeko fasearen planifikazioa		60

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC0874_3 ERAIKUNTZA-PLANIFIKAZIOAREN SEGIMENDUA EGITEA gaitasun-ataleko LB6, LB7 eta LB8 lanbide-burutzapenekin.

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Planifikazioaren segimendua egiteko, eguneratzeko eta berraztertze prozedurak deskribatzea eta aplikatzea; informazio eskuragarria interpretatzea eta txostenak egitea, aplikazio informatikoak erabiliz, kontrolatu beharreko proiektuen edo obren egoerari buruz.

EI1.1 Planifikazioaren segimendu-, eguneratze- eta berraztertze-beharrak azaltzea.

EI1.2 Informazio grafikoa nola erabiltzen den deskribatzea (txostenak, planoak, argazkiak...) proiektu/obra bateko lanak nola doazen erakusteko.

EI1.3 Eraikuntza-proiektuen eta -obren segimendua egiteko zer prozedura erabiltzen diren eta nolako maiztasunaz deskribatzea, eta segimendu-formularioen ohiko edukia deskribatzea.

EI1.4 Eraikuntza-proiektuetan eta -obretan nola eta zergatik eguneratzen den programa deskribatzea.

EI1.5 Proiektu/obra baten lanak nola doazen erakusteko erabiltzen diren grafikoak deskribatzea.

A2: Proiektu- eta obra-programen jarraipena egitea, eguneratzea eta berraztertzea, planifikazioko eta bulegotikako aplikazio informatiko espezifikoak erabiliz.

EI2.1 Ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkan obra erraz baten kasu praktiko batean, kontuan hartuz eraikuntza bat eta eraikuntza hori dagoen lursailaren urbanizazioa ditugula, haien programaren fase guztiak—guztiz ezarritako jarduera eta erlazioekin— ezagutzen ditugula eta behar diren aplikazio informatikoak ditugula:

- Obran programaren segimendua egiteko behar diren formularioak sortzea.
- Segimenduari buruzko informazioa, obraren lanen azterketaren ondorioz sortzen dena, sisteman sartzea.
- Programa araztea eta sekuentziaz kanpoko jarduerak kentzea, bide kritiko logiko eta justifikagarriko programa bat lortu arte.
- Desbideratzeak eta lanak bukatzeko aurreikusten den data berria zehaztea.
- Txosten matritzial bat eta aurrerapen-kurba bat egitea.
- Proiektuari egindako aldaketa baten ondoriozko jarduerak eranstea, eta lanak bukatzeko aurreikusten den data berria erabakitzea.

Edukiak

1. Eraikuntza-proiektu eta -obren planifikazioaren segimendua, eguneraketa eta berrazterketa.

- Proiektuen azken helburua eta erdibidekoak. Kontrol-puntu esanguratsuak.
- Planifikazioaren segimendua: helburuak eta maiztasuna, prozedurak; segimendua egiteko formularioak.
- Planifikazioaren eguneraketa; helburuak, prozedurak.
- Planifikazioaren berrazterketa: proiektuari egindako aldaketak (aldaketak proiektuaren irismenean, gauzatzeko metodoak, sekuentzia, epeak).
- Planifikazioko txostenak: proiektuaren aurrerakina, aldagai periodikoak eta metatuak; proiektuaren aurrerapenen berri ematen duten grafikoak (kurbak, espazio-denborak, txosten matritzialak, koloreekin markatutako planoak), txosten idatziak.

2. Eraikuntzako plangintza-lanetarako aplikazio informatikoak, .segimendu- eta aurkezpen-funtzioak.

- Segimendua egiteko formularioak.
- Txostenak.
- Aurrerapen-kurbak
- Txosten matritzialak.

3. Eraikuntzaren planifikazioan erabiltzen diren bulegotika-aplikazioak.

- Inportazio- eta esportazio-formatuak kudeatzea.
- Kalkulu-orriak editatzea eta ustiatzea.
- Datu-baseak editatzea eta ustiatzea.
- Aurkezpenak editatzea.
- Artxiboa.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Batxilergoko titulua izatea.
- 3. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta lanbide-eremu bereko 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Goi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo goi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana.
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Eraikuntza-proiektu eta -obren kontrola.